



Maria Gonzalez Gorosarri
Kazetaria eta ikertzailea

Emakumeen aurkako indarkeriaren erotizazioa

Shaolin faltsua» ezizena eman zioten hedabideek Juan Carlos Aguilarri bi emakume hil zituela jakin zenean. Asiako erlijio horretako buruzagia zela esatean gezurretan zebilela aditzera ematen du horrek. Auzia, ordea, bi emakume hil zituela da. «Shaolin faltsua» izendapenarekin ohiko gizonengandik bereizi dute: emakumeak hiltzen dituen ez da Bilbon gure artean bizi diren gizonen modukoa, urrunekoa baizik:

• «*El infierno del monje shaolín: El maestro mantenía orgías de dominación y sangre en su gimnasio de Bilbao*» («El País», 2014/08/24).

Hedabideek emakumeen aurkako indarkeria eta sexua nahastu dituzte. «El País»-ek, adibidez, emakumeak hiltzea sexua taldean izatearen ondorioztat aurkeztu zuen. EAEko telebista publikoak, Ertzaintzaren hitzei jarraiki, inkontziente zeuden emakumeen gorputza bortxatzeari «sexu harreman» esan zion:

• «*Aguilar tenía fotos de siete mujeres más, 'algunas violentas': El ertzaina encargado de la instrucción del atestado de los dos crímenes supuestamente cometidos por Juan Carlos Aguilar (...) ha explicado que en las imágenes, esas otras mujeres aparecían inconscientes, medio desnudas, con ropa erótica, y, en algunas ocasiones, manteniendo relaciones sexuales*» (Eitb.com, 2015/04/20).

Emakumeen aurkako indarkeria erotizatu egin dute. Bortxaketa ez da inolaz ere harreman sexuala, sarketa hutsa da. Horregatik, bere buruaren jabe ez ziren emakumeek ezin zuten harreman sexualik izan. Are gutxiago, Jenny Rebollok, hilda zegoelako.

Aguilarrek hildako emakumeak prostitutak zirela argitaratzea adierazgarria izan zitekeen edo ez eztabaidatu beharrean, Ertzaintzaren informazioa zabaldu zuten:

• «*Los restos óseos hallados en el gimnasio de Bilbao son de una mujer colombiana de 40 años: (...) pertenecen a Jenny Sofía Rebollo, de 40 años y natural de Colombia. Tenía dos hijos y ejercía la prostitución*» (GARA, 2013/06/05).

• «*El falso shaolín pudo haber engañado a su primera víctima: Le habría prometido un trabajo en su gimnasio para llevarla hasta el recinto donde supuestamente la mató y descuartizó*» («El Correo», 2013/06/07).

Hortaz, Rebollo ez zen une horretan prostituzioan aritu. Zergatik eman zuen Ertzaintzak datu hori eta zergatik zabaldu zuten hedabideek?

Emakumeen aurkako indarkeriaren berri emateko duten ga-beziaren ondorioz, Ertzaintzaren imajinario okerra bere horretan zabaldu dute hedabideek:

• «*Shaolin faltsuaren xehetasun guztiak, auziaren instruktorearen eskutik*» (Eitb.com, 2015/05/10).

Hedabideek ez dute berezko informazio-ekimenik garatu Ertzaintzaren filtrazioez harago joateko. Aguilar gizon matxista zen, baina hedabideek ez zuten «m»-z hasten den debekatutako hitz hori inoiz aipatu eta, aldiz, egiazkoak ez ziren beste hainbat adierazpen zabaldu zituzten:

• «*Sus amigos dicen que era una persona 'correcta y educada', que se había ensombrecido por 'una grave enfermedad'*» («El Correo», 2013/06/04).

Aguilarren jokabideak gizon matxisten urrats guztiak eman zituen: argitu gabeko arrazoiengatik bikotearengandik banandu zen eta emaztea seme-alabekin urrunera bizitzera joan zen (Bartzelonara), Aguilarrek ez du seme-alabekin harremanik, kalean prostitutei irainak esaten zizkien, baina, aldi

berean, prostituzioa kontsumitzen zuen. Aguilarren bikotekideak epaiketari aitortu zuen, sexurik izan nahi ez zuenean, bere alaba bortxatzearekin mehatxatzen zuela. Hedabideek, baina, Aguilarren jarrerari erreparatu zioten:

• «*En trance casi constante*» («Deia», 2015/04/18).

Sinestezina da Aguilarren ageriko matxismoaz hitzik ez esatea. Larria da Euskal Herrian azken hamarkadan hildako emakume etorkinen izenak ez aipatzea:

• «*De Rita y Tatiele a Jenny y Ada, la misma herida abierta*» (GARA, 2013/06/09).

Nazkagarria da hedabideek Ertzaintzarekiko duten informazio-mendekotasuna: Espainiako Poliziak Indautxuko polizia-etxean etorkin bat (Rita M.) bortxatu ondoren, lankideek ikerketa oztopatu dutelako. Erasoen egiten diguten gizonak gure artean bizi dira, eta, kasu horretan, gu zaintzen gaituztenak dira. •



Larria da emakume etorkinen izenak ez aipatzea.

Marisol RAMIREZ | A. PRESS